



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhoa Mindeguia Santesteban
Txomin Hualde Elizalde
Ezekiel Loiarde Santesteban
Pedro Hilario Santesteban Loyarte
Naiara Arretxea Gorosterrazu
(kontuhartzailea)

2024ko otsailaren 2an, 19:00tan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. - AKTAK ONARTZEA.

Idazkariak azaldu du aurreko aktak ezin izan dituela prestatuta beraz, aktak sinatzea hurrengo osoko bilkurarako utziko da.

***** Martxel Elizalde Elizalde zinegotzia sartzen da*****

2.- 2022KO KONTUEN IXTEA.

Kontuhartzaileak 2022ko kontuen espedientea azaltzen du eta aztertu ostean, Kontuen Batzorde Berezia gisa arituz, udalbatzak aho batez erabaki du:

1. Aldeko txostena ematea 2022ko kontuei.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3.- 2024KO AURREKONTUA

Kontuhartzaileak aurrekontua aurkeztu du eta ondoren bozkatzera deitu du. Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du:**

- 1.- 2024ko Aurrekontua hasierako onespina ematea.
- 2.- 2024ko Aurrekontua erakustaldi publikoan jartzea hamabost laneguneko epean.
- 3.- Erakustaldi publikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.





ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Hau da aurrekontuaren laburpena:

DIRUSARRERAK:		EUROAK
1. Kapituluua.	Zuzeneko zergak:	82.600,00
2. Kapituluua.	Zeharkako zergak:	5.380,29
3. Kapituluua.	Tasak eta bestelako dirusarrerak:	27.500,00
4. Kapituluua.	Transferentzia arruntak:	189.024,12
5. Kapituluua.	Ondareko dirusarrerak:	19.200,00
7. Kapituluua.	Kapital transferentziak:	416.772,97
9. Kapituluua	Finantza pasiboak	130.000,00
DIRUSARRERAK GUZTIRA:		870.477,38

GASTUAK:		EUROAK
1. Kapituluua.	Langileen lansariak:	87.110,00
2. Kapituluua.	Ondasun eta zerbitzuen gastuak:	111.510,00
3. Kapituluua.	Finantza-gastuak:	1.000,00
4. Kapituluua.	Transferentzia arruntak:	113.443,44
6. Kapituluua.	Inbertsio errealak:	547.713,94
7. Kapituluua.	Kapital transferentziak:	9.700,00
GASTUAK GUZTIRA:		870.477,38

***** Naiara Arretxea Gorosterrazu (kontuhartzailea) ateratzen da*****

4.- PLANTILLA ORGANIKOA

Udalburuak 2024ko plantilla organikoa aurkeztu du eta ondoren bozkatzera deitu du. Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du**:

1.- 2024ko Plantilla organikoari hasierako onespena ematea.

2.- 2024ko Plantilla organikoa erakustaldi publikoan jartzea hamabost laneguneko epean.

3.- Erakustaldi publikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.





ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

5.-TASAK.

Udalburuak aho batez erabakitzen du 2023ko zerga, tasa eta prezio publikoak 2024. urterako berdina mantentzea.

6.- ERAIKIN PUBLIKOA BERRITU ETA ZAHARBERRITZEA UDAL PROIEKTUAREN OBRA ESLEITZEA.

Zubietako Udalean, 2024ko otsailaren 1ean 18:45ean, Kontratazio Mahaia bildu zen, Dokumentazio Administratibo eta Ekonomikoa irekitzeko.

Administrazio Klausula Partikularren Pleguan xedatu bezala, **“Eraikin publikoa berritu eta zaharberritzea udal proiektuaren obra”** esleipenari dagokionez.

Lizitaziora aurkeztu diren enpresen dokumentazio administratiboa idazkariak akta aurkezten du, hurrengoak onartuak egonda:

- IM ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L.
- ELECNOR SERVICIOS Y PROYECTOS S.A.U.
- CONSTRUCCIONES A BENGOTXEA, S.L.


Ondoren, dokumentazioa ekonomikoaren emaitzaren akta:

Nº	EMPRESA	Precio	Puntos
1	I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L.	275.032,00€	80,27 puntos
2	ELECNOR SERVICIOS Y PROYECTOS, S.A.U	258.777,96€	95 puntos
3	CONSTRUCCIONES A BENGOTXEA, S.L	275.414,11€	81,17puntos

Kontratazio Mahaiaren aktak ikusita, osoko bilkurari behin behineko proposamena aurkezten dio **“Eraikin publikoa berritu eta zaharberritzea udal proiektua”** obraren esleipena Elecnor Servicios y Proyectos, SAU enpresari egitea 258.777,96 eurotan, Bez gabe.

Kontratazio mahaiaren proposamena ikusirik, Udaltzako aho batez **hurrengoa erabaki du:**

1. Elecnor Servicios y Proyectos, SAU. enpresari esleitzea **Eraikin publikoa berritu eta zaharberritzea udal proiektua”** obraren kontratazioa, 258.777,96 €, (Bez gabe) puntuazio onena duen eskaintza delako.





ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

2. Elecnor Servicios y Proyectos, SAU enpresari emaiza jakinarazi eta pliegoen arabera 14 puntuak agertzen den dokumentazioa eskatzea.
3. Parte hartu duten enpresei emaitzaren akta jakinarazi

7. HERRIKO OSTATUAREN ESLEIPENA.

Zubietako Udalak, 2023ko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran, erabaki zuen deia egitea *Herriko Ostatuan* taberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendua emateko leihaketa irekita.

Aurkeztu den eskaintza bakarra ireki eta aztertu du, osoko bilkura kontratazio-mahaia gisa arituz, eta idazkariak eskaintza irakurri du.

Emaitza hau izan da:

Yolanda Riobó Freire, Veronica Cabeza Sainz, Max Wastiaux eta Joël Boelen aldeko esleipena.

Horrenbestez, Udaltzak aho batez **hurrengoa erabaki du:**

1. *Herriko Ostatuan* taberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendu kontratua esleitzea Yolanda Riobó Freire, Veronica Cabeza Sainz, Max Wastiaux eta Joël Boelei, 200 eurotan gehi BEZa hilabetero .

2. Baldintza pleguko 8. eta 9. baldintzak bete beharko dituzte adjudikatariek epe-barru (behin betiko fidantza ezarri, kontratua gauzatu eta horretarako behar diren agiriak aurkeztu).

3. 2024ko Martxoaren 1ean hasteko kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

4.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

8.- GARBIKETA KONTRATUAREN ESLEIPENA

Udalburuak azaldu du, 2023ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran Garbiketa Kontratazioa bukatzen zela ikusita, kontrataziorako prozesua ireki zela 2024ko urtarrilaren 12arte. Sobre bakarra aurkeztu zen eta idazkariak ireki eta Lourdes Elizalde bere burua aurkeztu zuen. Gaia aztertu ondoren Udaltzak aho batez **hurrengoa erabaki du:**



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

- 1.- Garbiketa kontratuaren esleipena Lourdes Elizalderen alde egitea 2.100 eurotan.
- 2.- Esleipenaren kontratua sinatzeko Alkatea izendatzea Udal ordezkaria.
- 3.- Akordioa esleipendunari jakinaraztea.”

9. TOKIKO INBERTSIOEN PLANEN ONARTUTAKO AURKIDIKO BIDEA PROIEKTUAREN OBRAREN PLIEGOAK ONARTU

Ikusirik, 8/2022 Foru legea, martxoaren 22koa, 2023-2025 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duena, Zubietako udalak « Aurkidiko bidea hormigonatzeko» memoria teknikoa aurkeztu zuen.

Ikusirik, 27E/2023ebazpena, ekainaren 15koa, behin-behineko zerrandan onartua agertzen zela, Martin Mindegua Ochandorena proiektua idaztea eskatu zitzaion.

Ikusirik, 2023/54 alkate ebazpenaren bidez, (2023ko azaroaren 21 osoko bilkuran berretzi zena) «Aurkidiko bidea hormigonatzeko» proiektua onartu zen, behin betiko zerrendan sartuz.

Aurrekariak kontuan hartuta eta kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legean eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 224. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera, Udaltzarak honako hau aho batez erabaki da:

1. Onestea «Aurkidiko bidea hormigonatzeko» obrak kontratatzeko espedientea, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea, kontratua prozedura irekiaren bidez esleitzeko.
2. .Kontratazioaren plegu arautzailea onestea.
3. Gasturako baimena ematea. Aldez aurretik izapidetzen den gastua eta, hala badagokio, esleipena edo suntsiarazpena, dagokion ekitaldian dagozkion betebeharrak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende egonen dira.
- 4 . Lizitazio argitaratzea Nafarroako Plataforma Elektronikoaren Atarian (PLENA)



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

10.- ESKAERAK

10.1.- Korrika 23 dirulaguntza eskatzen du. Gai aztertu ondoren, udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Eskaera desestimatzea.

10.2.- Nafarroako Alzheimerren eta bestelako demenzia duten pertsonen senideen elkarteak dirulaguntza eskatzen du. Gai aztertu ondoren, udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Eskaera desestimatzea.

10.3.- Euskal Herrian Euskeraz dirulaguntza eskatzen du. Gai aztertu ondoren, udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Eskaera desestimatzea.

11.-ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (70/2023- 75/2023 eta 1/2024- 4/2024 ebazpenak).

12.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

-Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduri egindako oihan aprobetxamendu eskaerak; Ana Maria Mugiza Santesteban, M^a Carmen Elizalde Elizalde, Jose Ramon ochandorena, m^a Carmen Bendoiro Ormaechea, Manuel Santesteban Loyarte, Patricia Tellechea Ochandorena, Juan Miguel Vera;---Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduak emandako aprobetxamendu baimenak: Manuel Santesteban Loyarte, Juan Bautista Santesteban Loyarte,--- Abeltzaintza zerbitzutik ebazpenak Pedro Eizaguirre erleak baja emanez eta Julen Burguete Alvarez untxiak baja emanez----Kultur, Kirol eta turismo departamentuaren ebazpena 601/2023, abenduaren 5koa Museoen funtzionamendurako 10.941,78 €ko dirulaguntzaren ordainketa.--- Kultur, Kirol eta turismo departamentuaren ebazpena 562E/2023, azaroaren 27koa, Museoen inbertsioarako 666,41 €ko dirulaguntzaren ordainketa----- Euskarabide departamentuaren ebazpena 90E/2023, azaroaren 27koa Euskaera sustatzeko 1.486,71 €ko dirulaguntza emanez----Abeltzaintza eta nekazaritza zuzendari Nagusiko ebazpena 273/2023, abenduaren 5koa, 2021ko uhodeen kalteak konpontzeko dirulaguntzaren azkeneko zatia ordaintzea.

13.- GALDE-ESKAERAK

Ez dago galde-eskaerik.

Eta bertzerik ezean, 20:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

